



---

## **AKTA**

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** egindako ezohiko bilkurarena,

### **2019ko abenduaren 11koa**

Arespalditzako Aiarako Kuadrillaren egoitzan, **13:00ak direnean**, jarraian zerrendatzen diren batzordekideak elkartu dira **ezohiko bilkura egiteko, bigarren deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko batzordeburu **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta M<sup>a</sup> Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun/andre batzordekideak bertaratu dira:

**Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)**  
**Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)**  
**Josune IRABIEN MARIGORTA and. (EAJ-PNV)**  
**Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)**

Jarraian aipatutako jaun/andreak ez dira bertaratu:

**Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)**  
**Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)**

Irabien andrea bilkuran sartu da 13:25ean, eguneko gai-zerrendako 10. puntua amaitzen ari zenean. Alamillo jauna bileratik irten da 14:15ean, eguneko gai-zerrendaren 13. puntua amaitu denean.

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Gainera, Kuadrillako teknikari gisa honako hau bertaratu da, bere arloko puntuak azaltzeko: Giafranco Ghiro.

Kuadrillako presidente andreak, lehenengo deialdian ez denez quorumik egon, bilkura bigarren deialdira atzeratu du, ordubete geroago. Kuadrillako presidente andreak, **bigarren deialdian, 13:00etan**, osoko ezohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, bestek



---

beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta.

## **1.- BILKUREN EGUNA ETA ORDUA EZARTZEA.**

Urriaren 31ko 56/2019 Batzordeburutza Dekretuak ezartzen du TGBren osaera, eta ohiko bilkurak hilabeteko 2. eta 4. asteartean ezartzen ditu, 13:00etan. Era berean, aurreko bilkuran ezarri zen beharrezkoa dela bilkuren data aldatzea, kideen agendako arazoak direla eta.

Alkate jaun/andreen agendak egiaztatu ondoren, guztien artean proposatu dute bilkurak hilabeteko **lehenengo eta hirugarren asteazkenetan egitea, 13:00etan.**

## **2.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.**

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da aztertzeko, eta, ez dagoenez inongo alegaziorik, **ERABAKI DA**, aho batez, 2019-11-11ko bilkuraren akta onestea.

## **3.- AMURRIOKO UDALEKO LAN-POLTSARAKO ELKARRIZKETAK, ERAGILE SOZIOKULTURALAREN LANPOSTURAKO.**

Amurrioko Udaleko eragile soziokulturalaren lanposturako lan-poltsan dauden pertsonen egingo zaizkien curriculum-elkarrizketetan ezarriko diren irizpideak erabaki dira. Hori dela eta, lehenetsun gisa ezarri da tokiko beste administrazio batzuetan antzekoak edo berdinak diren lanetan egondako hautagaien esperientzia.

Deiari begira, Amurrioko Udalak emandako lan-poltsako zerrendan sartutako 20 pertsonekin jarriko gara harremanetan, zerrendako ordenaren arabera. Hori honako hau da:

### **1.- IZASKUN ETXEBERRIA LÓPEZ:**

Lortu nahi duen lanpostuan gauzatu beharreko funtzioei dagokien jasotako prestakuntza eta esperientziari buruzko azalpena egin du, eta, bertan, Arte Ederren lizentzia duela eta Amurrioko Udaleko Kultur Etxean margolaritza-irakaslea izan dela azpimarratu du. Egindako gainerako lanek lanpostu honen egiteko batzuekin harremana dute, baina ez dira oso azpimarragarriak.

Ez du administrazio-espeditteen izapiderik egin, eta, programazioari dagokionez, margolaritza-lanekin lotutakoa egin du.



---

Libre egoteari dagokionez, gaur egun Amurrioko udalean dago lanean.

## **2.- MARIO ORTIZ DE PANIEGO:**

Lortu nahi duen lanpostuan gauzatu beharreko funtzioei dagokien jasotako prestakuntza eta esperientziari buruzko azalpena egin du, eta, bertan, Arte Ederren lizentzia duela eta kultura-kudeaketan eta diseinu-kudeaketan espezializatua dagoela azpimarratu du.

Udaleko administrazio-espeditentak izapidetu eta kudeatzen esperientzia handia du, baita La Peña zentro kulturala kudeatu eta dinamizatzen ere.

Horrez gain, enpresa esleipendunaren bidez Amurrioko gaztelekuan eta Orozkoko Udalean lan egin du. Esperientzia handia du laguntzak eskatu eta justifikatzen.

Libre dago Arrigorriagako Udaleko kontratua amaitu berri zaiolako.

## **3.- RUTH AGUILAR RAMÍREZ:**

Lortu nahi duen lanpostuan gauzatu beharreko funtzioei dagokien jasotako prestakuntza eta esperientziari buruzko azalpena egin du, eta, bertan, Politika Zientzietan eta Administrazio Zientzietan lizentzia duela eta berdintasun-arloan prestakuntza handia duela azpimarratu du. Kanpoko enpresa baten bidez, Amurrio eta Orozkoko udaletan berdintasun-teknikari gisa egin du lan.

Berdintasun-arloko laguntzen eskaerak eta justifikaziorako espeditentak kudeatzen ditu.

Libre egoteari dagokionez, gaur egun lanean dago.

## **4.- MIKEL LÓPEZ DE LA PINTA**

Lortu nahi duen lanpostuan gauzatu beharreko funtzioei dagokien jasotako prestakuntza eta esperientziari buruzko azalpena egin du, eta, bertan, gorputz-hezkuntzako irakasle-ikasketak dituela azpimarratu du. Lan-esperientzian, azpimarratu du irakasle eta hezitzaile sozial gisa lan egin izana, baita Guardiako Kuadrillan euskara-teknikari gisa lan egindako hiru hilabeteak. Azkenik, azpimarratu du Aiarako Kuadrillan euskara-teknikari lanetan egon zela abendutik uztailaren erdialderaino.

Elkarrizketak amaitzean, aurkeztutako pertsonen antzekoak edo berdinak diren lanpostuetan izandako prestakuntza eta esperientzia baloratu dute, eta, aho batez, honako deialdirako ordena ezarri da eragile soziokulturalaren lanposturako lan-poltsako hautagaien zerrendan:

- 1.- MARIO ORTIZ DE PANIEGO**
- 2.- RUTH AGUILAR RAMÍREZ**
- 3.- MIKEL LÓPEZ DE LA PINTA**
- 4.- IZASKUN ETXEBERRIA LÓPEZ**



---

**4.- KUADRILLAREN  
AHOLKULARITZA-ZERBITZUAREN  
ESPEDIENTEAREN EGOERA.**

**HIRIGINTZA-ARLOKO  
ERREKLAMAZIOEN**

Jakinarazi da, aurreko bilkuran azaldutakoari buruz, ez dela aldatu espediente honen egoera, eta oraindik dagozkion epaien zain gaudela.

Aiarako Udalean zerbitzua ematen duten bi teknikariei dagokionez, ahozko ikustaldia abenduaren 3an izan da eta epaia ematearen zain gaude.

Eztabaida amaitutakoan, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

**5.- AIARAKO KUADRILLAKO ZERBITZUEN BALIABIDEEN  
GIDA.**

Aurreko bilkuran zerbitzu honetarako kontratazio-baldintzak ezarri ziren, eta orain kontratazioa egiteko pleguak aurkeztu dira.

Azaldu da deialdiarekin batera igorri diren oinarrien laburpena, eta, aldi berean, sortzen diren zalantzak azaldu dira.

Eztabaida amaitutakoan, bozkatu egin da, eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Onestea 2020-23 AIARAKO KUADRILLAKO BALIABIDE ETA ZERBITZUEN GIDA egiteko kontratu txikiaren kontratazioaren oinarri arautzaileak; ez du Kuadrillarako inongo kosturik izango.

**BIGARRENA.-** 3 enpresa gonbidatzea lizitaziora.

**HIRUGARRENA.-** Batzordeburua gaitzea kontratazioa esleitzeko, ez bada organo honen bilera bat egiten, Gabonetan gaudelako.

Aipatutako akta hori 2020-23 AIARAKO KUADRILLAKO BALIABIDE ETA ZERBITZUEN GIDA egiteko kontratu txikiaren kontrataziorako oinarri arautzaileen **I. ERANSKIN** gisa erantsi da.

**6.- 2019ko LEHIAKETA BATERATUAREN DEIALDIA, TOKIKO  
ADMINISTRAZIORAKO ETA NAZIO BARNEKO GAIKUNTZA  
DUTEN FUNTZIONARIOEI GORDETAKO ETA HUTSIK DAUDEN  
LANPOSTUETARAKO.**



---

Jakinarazi da, urtero bezala, Arabako Foru Aldundi txit gorenaren Foru Gobernuaren Batzordearen azaroaren 12ko 2019/721 Erabakiaren bidez 2019ko lehiaketa bateratua deitzen dela, tokiko administraziorako eta nazio barneko gaikuntza duten funtzionarioei gordetako eta hutsik dauden lanpostuetarako; horien artean, Kuadrillako kontu-hartzailearen lanpostua dago. Idatzia **III. ERANSKIN** gisa erantsi da.

Eztabaida amaitutakoan, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

## **7.- 2019-20 LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO JARDUERA PLANIFIKATZEA**

Jakinarazi da bilkuraren deialdiarekin batera erantsi egin direla IMQ Prevención enpresako kanpoko teknikariak aurreikusi edo gomendatutako Plangintza Proiektuaren prebentzio-jarduerak, Kuadrillarekin aurretiaz adostu ondoren, 2019-20 urteko jarduerak antolatzeko; ondoren, aipatutako proposamena aztertu da.

Eztabaida amaitutakoan, bozkatu egin da, eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Onestea 2019-20 urterako IMQ Prevención enpresako kanpoko teknikariak aurreikusi edo gomendatutako prebentzio-jardueren plangintza.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau IMQ Prevención enpresari jakinaraztea, lana egin dezan.

## **8.- AMURRIO TRAIL RUNNING MENDI-TALDEAREN LAGUNTZA-ESKAERA.**

AMURRIO TRAIL RUNNING MENDI-TALDEAK egindako eskaera **V. ERANSKIN** gisa erantsi da.

Eskaera aztertu da, eta adierazi da eskaera egiten dela 2020. urtean gauzatuko diren jarduerak burutu ahal izateko.

Eztabaida amaitutan, bozkatu egin da, eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Jakinaraztea **AMURRIO TRAIL RUNNING MENDI-TALDEARI** Kuadrillak oraindik ez duela 2020ko aurrekontua onetsi. Edonola ere, hilabete honetan onestea espero du, eta mendi-taldeari jakinarazi dio eskaera berriz ere egiteko 2020ko eskualdeko laguntzen deialdia egitean, baita horretarako eskatutako dokumentazioa aurkeztu dezala ere.



---

## **9.- 2020ko ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKOA EGITEKO ARABAKO BERTSOZALE-ELKARTEAREN ESKAERA.**

Jakinarazi da arloko teknikariak bilkuraren deialdian jakinarazi duela 2019/11/27an Arabako Bertsozale Elkarteak, bi urtean behin egiten duen moduan, dossier bat aurkeztu zuela, baita 650 euroko laguntza ekonomikoaren eskaera ere, 2020ko Arabako Bertso Kuadrilla artekoa egiteko. Ekimena bi urtean behin antolatzen du, eta urtarrila eta martxoa bitartean egingo da Arabako hainbat kuadrillatan. Aiaraldeako talde batek parte hartuko du ahozko modalitatean eta beste batek idatzizko modalitatean (bilkura honen deialdiaren VI. ERANSKIN gisa dago atxikita). Kuadrillaren 2020ko aurrekontuaren aurreproiektuan, dagokion partida jasota dago.

Eztabaida amaitutakoan, bozkatu egin da, eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Eskatutako dirulaguntza Kuadrillako 2020ko aurrekontuaren aurreproiektuan dirulaguntza izendun gisa dagoenez, aurrekontua onesteko prozedura betetzeari itxarotea.

**BIGARRENA.-** Aurrekontua onetsiko balitz, eskaera aurkeztuta izatea eta 650 euroko dirulaguntza ematea ARABAKO BERTSOZALE-ELKARTEARI.

## **10.- EUSKARAREN GIZARTE-ERAKUNDEEN KONTSEILUA: 2020ko DIRULAGUNTZARAKO ESKAERA**

Jakinarazi da arloko teknikariak bilkuraren deialdian jakinarazi duela, aurreko urteetan gertatu moduan, EUSKARAREN GIZARTE-ERAKUNDEEN KONTSEILUAK lankidetzak ekonomikoko eskaera bat bidali duela 2020. urterako (2019/11/19an sartu zen). Ez zen inongo zenbateko zehatzik adierazten (bilkuraren deialdian VII. ERANSKIN gisa erantsi da), Aiarako Kuadrillak KONTSEILUAREN proiektu orokorra finantzatzeko lagundu dezan aipatutako urtean. Aurreko ekitaldietan 1.000 euroko dirulaguntza bat eman zaie, urteko lankidetzak-hitzarmen baten bidez. 2020ko Kuadrillaren aurrekontuaren zirriborroan 1.000 euroko zenbatekoa dago horretara bideratuta.

Eztabaida amaitutakoan, bozkatu egin da, eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Eskatutako dirulaguntza Kuadrillako 2020ko aurrekontuaren aurreproiektuan dirulaguntza izendun gisa dagoenez, aurrekontua onesteko prozedura betetzeari itxarotea.

**BIGARRENA.-** Onetsiko balira, eskaera aurkeztuta izatea eta 1.000 euroko dirulaguntza esleitzea EUSKARAREN GIZARTE-ERAKUNDEEN KONTSEILUARI.

## **11.- HHSen BILKETA-ZERBITZUA:**



---

**11.1.- ZERBITZUAN EGONDAKO ETA KUADRILLAK  
ESKATUTAKO GERTAKARIEI BURUZKO TXOSTEN JURIDIKO  
BAT EGITEKO ETA “CESPA” ENPRESAK AURKEZTUTAKO  
TXOSTENA EGITEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA  
ESLEITZEA.**

Jakinarazi da Francisco Javier Vázquez Matilla jaunarekin harremanetan jarri ginela. Azken horrek espediente honen hainbat gai landu zituen, eta gaian aholkularitza emateko eskaini zuen bere burua, Kontuen Euskal Epaitegiak esleitutako beste kontratu bat duelako, etorkizunean egon daitezken interes-gatazkarik badago.

Aipatutako profesionalak gomendatu digu, arloan aditua delako, IPARBILBAO Abogados SPL enpresarekin, zehazki Eusebio Umerez jaunarekin, harremanetan jartzeko. Azken horrek dio gaia bere gain hartu dezakeela, eta, horretarako 1.750 euroko aurrekontua gehi BEZa prestatu duela, osotara 2.117,5 €, BEZa barne.

Eztabaida amaitutakoan, bozkatu egin da, eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Esleitzea IPARBILBAO Abogados SPL enpresari, Eusebio Umerez jaunak txosten juridiko bat egin dezan CESPA enpresak Kuadrillako hondakinen kudeaketa eta garraiorako eman gabeko zerbitzuen nahiz ez-betetzeen eta igorritako fakturen ondorioen inguruko espedientean.

**11.2.- “CESPA” ENPRESAK AURKEZTUTAKO TXOSTENARI  
BURUZKO TXOSTEN TEKNIKO-JURIDIKOAREN  
GAUZATZE-EGOERA.**

Gaia alde batera utzi da, kontratazioan aditua den Umerez jaunak egindako txostena bidali arte.

**12.- HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUAREN KOSTUEN  
BANATZE-IRIZPIDEEN AZTERKETA.**

Gaia aurreko bilkuretan landu denez eta udalek ez dutenez inongo alegaziorik aurkeztu, bozkatu eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Onestea hondakinen bilketarako zerbitzuaren kostuak banatzeko izapide berriak, 2019ko ekitaldian ere aplikatuko direnak. Izapide horiek eskema honen arabera ezarri dira:



		AMURRIO	ARTZINIEGA	AIARA	OKONDO	LAUDIO	LAUDIO (pneumatika )	Irizpidea
KANONA CESPA	Hiri hondakinen ohiko bilketa							
	HHSen bilketa	x	x	x	x	x		Sorkuntza (pisaketa)
	Ontzien bilketa	x	x	x	x	x		Sorkuntza (pisaketa)
	Organikoen bilketa	x	x	x	x		x	Sorkuntza (pisaketa)
	Mantentze Lan Orokorrak.	% 35,10	% 6,45	% 12,42	% 4,20	% 41,83		Sorkuntzen historikoa (CESPA)
	<i>P eta C komertziala biltzea (PaP)</i>	<i>% 18 (30)</i>	<i>% 1 (2)</i>	<i>% 1 (1)</i>	<i>% 1 (2)</i>	<i>% 80 (136)</i>		<i>Dendak % (pleguaren arabera), 2020 erreala = 171</i>
	<i>Arrandegien bilketa</i>	<i>% 35 (5)</i>				<i>% 64 (9)</i>		<i>Dendak % (pleguaren arabera), 2020 erreala = 14</i>
	Tamaina handiko elementuen bilketa eta garraioa	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Abandonatutako ibilgailuen bilketa	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Pilen, Cden eta minipuntaren bilketa	% 43 (33)	% 1 (1)	% 4 (3)		% 52 (40)		Puntu kopurua = 77
	Etxeko erabilerako landare-olioaren bilketa eta beste batzuk	% 23 (6)	% 8 (2)	% 12 (3)	% 12 (3)	% 46 (12)		Oliorako edukiontzi kopurua = 26
	Fibrozentuzko hondakinak kentzea	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Merkatu, jai eta gainerako bilketa	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Pneumatika-hondakinen lekualdaketak						% 100	Laudio
	Pneumatika errepassoa						% 100	Laudio
	Okondoko garbigunea	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Laudioko Atzeko Kargaren Bilketa					% 100		Laudio
	Beste bilketa zerbitzu batzuk							
	Edukiontziak eta postontziak garbitzea	x	x	x	x	x	x	Sorkuntza (pisaketa)
	Edukiontzi-garbitzailearekin garbitzea	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	ET Laudioko kudeaketa	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Artziniegako lurpekoen bilketa		% 100					Artziniega
	P eta C	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria

AIARAKO KUADRILLA  
ARABA



AIARAKO KUADRILLA  
ARABA

	garraiatzea azken helmugaraino							
	Garbigunearen kudeaketa	% 10	% 6,82	% 11,05	% 4,33	% 68		Biztanleria
	Zerbitzu komunak							
	Zerbitzu komunak	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37	% 52,84		Biztanleria
KUADRILLA	SOLDATA	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37	% 52,84		Biztanleria
	MA PROIEKTUAK	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37	% 52,84		Biztanleria
BESTE BATZUK	JUNDIZ TASAK	x	x	x	x	x	x	Pisatzea
DIRU-SARRERAK	ONTZIEN SARRERA	x	x	x	x	x	x	Pisatzea
	PAPERAREN SARRERA	x	x	x	x	x	x	Pisatzea
	GARBIGUNEK O SARRERAK (eta hitzarmenak)	% 10	x	x	x	x	x	Biztanleria

	URTEKO KOSTUA	AMURRIO	ARTZINIEGA	AIARA	OKON
Hiri hondakinen ohiko bilketa	729.161,70	222.229,60	39.751,16	70.357,02	27.63
HHSen bilketa	371.396,09	130.360,03 €	23.955,05 €	46.127,39 €	15.598,
Ontzien bilketa	72.734,99	28.832,15 €	4.436,83 €	8.044,49 €	3.731,
Organikoen bilketa	15.598,57	5.149,09 €	2.461,45 €	1.937,34 €	717,
Mantentze-Lan Orokorrak	30.822,77	10.818,79 €	1.988,07 €	3.828,19 €	1.294,
<b>P eta C komertziala biltzea (PaP)</b>	<b>51.664,56</b>	<b>9.061,96 €</b>	<b>604,48 €</b>	<b>304,82 €</b>	<b>604,</b>
<b>Arraindegien bilketa</b>	<b>17.442,13</b>	<b>6.228,58 €</b>	<b>0,00 €</b>	<b>0,00 €</b>	<b>0,</b>
Tamaina handiko elementuen bilketa eta garraioa	41.064,20	12.260,50 €	2.182,48 €	3.536,54 €	1.385,
Abandonatutako ibilgailuen bilketa	6.979,22	2.083,78 €	370,93 €	601,07 €	235,
Pilen, CDen eta minipuntaren bilketa	4.438,78	1.878,05 €	56,82 €	227,71 €	0,
Etxeko erabilerako landare-olioaren bilketa eta beste batzuk	25.849,97	5.966,17 €	1.987,86 €	2.983,09 €	2.983,
Fibrozementuzko hondakinak kentzea	12.221,00	3.648,81 €	649,52 €	1.052,50 €	412,
Merkatu, jai eta gainerako bilketa	16.956,00	5.062,54 €	901,18 €	1.460,29 €	571,
Pneumatika-hondakinen lekualdaketak	37.700,91	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,
Pneumatika errepasoa	18.403,42	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,
Okondoko garbigunea	2.944,55	879,15 €	156,50 €	253,59 €	99,
Laudioko Atzeko Kargaren Bilketa	2.944,55	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,
<b>Beste bilketa zerbitzu batzuk</b>	<b>304.255,08</b>	<b>72.236,84</b>	<b>23.833,94</b>	<b>28.671,82</b>	<b>11.03</b>
Edukiontzia eta postontziaz garbitzea	37.786,50	11.883,85 €	2.229,40 €	4.160,29 €	1.432
Edukiontzia-garbitzailearekin garbitzea	11.877,05	3.546,12 €	631,24 €	1.022,88 €	400
ET Laudioko kudeaketa	154.633,01	46.168,62 €	8.218,43 €	13.317,35 €	5.215
Artziniegako lurpekoen bilketa	6.477,24	0,00 €	6.477,24 €	0,00 €	0
P eta C garraiatzea azken helmugaraino (Autotrinkogailua)	6.497,06	1.939,82 €	345,31 €	559,54 €	219
Garbigunearen kudeaketa	86.984,21	8.698,42 €	5.932,32 €	9.611,76 €	3.766
<b>Zerbitzu komunak</b>	<b>124.765,13</b>	<b>37.251,00</b>	<b>6.631,01</b>	<b>10.745,06</b>	<b>4.20</b>
Zerbitzu komunak	124.765,13	37.251,00 €	6.631,01 €	10.745,06 €	4.208,
<b>LURPEKOAK</b>	<b>12.000,00</b>	<b>4.000,00</b>	<b>8.000,00</b>		
SOLDATA	50.661,71	15.933,11	2.989,04	5.577,85	1.92
MA PROIEKTUAK	25.566,67	7.633,41	1.358,82	2.201,86	86
JUNDIZKO GAINERAKO TASAK	0,0884	239.908,95	44.113,13	84.874,87	28.71
JUNDIZ TASA ORGANIKOA	0,0550	2.885,03	1.378,97	1.085,83	40



<b>GASTUA GUZTIRA</b>	<b>2.009.025,72 €</b>	<b>602.077,93 €</b>	<b>128.056,08 €</b>	<b>203.514,33 €</b>	<b>74.772,18 €</b>
-----------------------	-----------------------	---------------------	---------------------	---------------------	--------------------

	URTEKO KOSTUA	AMURRIO	ARTZINIEGA	AIARA	OKONDO	L
<b>GASTUA GUZTIRA</b>	<b>2.009.025,72 €</b>	<b>602.077,93 €</b>	<b>128.056,08 €</b>	<b>203.514,33 €</b>	<b>74.772,18 €</b>	
TEFF DIRU-SARRERA	707.701,45	211.385,88	40.559,46	63.950,55	24.171,32	
ONTZIEN SARRERA	0,23	37.184,76	5.724,90	10.373,50	4.815,91	
GARBIGUNEKO DIRU-SARRERAK (ORDAINTZEKE)						
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	850.790,89 €	248.570,64 €	46.284,36 €	74.324,05 €	28.987,23 €	
<b>GUZTIRA URTEAN</b>	<b>1.158.234,83 €</b>	<b>353.507,29 €</b>	<b>81.771,71 €</b>	<b>129.190,27 €</b>	<b>45.784,95 €</b>	
% udalen artean	% 100,00	% 30,52	% 7,06	% 11,15	% 3,95	
<b>2018 LIKIDAZIOA</b>	<b>981.390,53 €</b>	<b>310.733,94 €</b>	<b>67.824,46 €</b>	<b>119.529,28 €</b>	<b>43.307,37 €</b>	
% udalen artean	% 100,00	% 31,66	% 6,91	% 12,18	% 4,41	
<b>% DIFERENTZIA udalerrien artean 2018/2019</b>		<b>% 1,14</b>	<b>% -0,15</b>	<b>% 1,03</b>	<b>% 0,46</b>	
<b>2018/2019 DIFERENTZIA</b>	<b>176.844,30 €</b>	<b>42.773,35 €</b>	<b>13.947,25 €</b>	<b>9.660,99 €</b>	<b>2.477,58 €</b>	

### **13- AURREKONTUEN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA**

Arloko teknikariak arlo bakoitzean 2020ko Aurrekontu Proiektuaren azalpen zehatz bat eman du, eta aldi berean horren inguruan sortzen diren galdera eta zalantzak argitu ditu. Dokumentazioa deialdian erantsi da IX. ERANSKIN gisa.

Bilkuran jakinarazi eta aztertu dira talde batzarkideek egindako ekarpenak, abenduaren 2tik aurrera; izan ere, arloko Informazio Batzordeak epea eman zuen ekarpenak edo zuzenketak egiteko.

Aurrekontuen Gizarte Ongizateko arloaren azterketan, zalantza bat sortu da: aurrekontuen zirriborroan 2020. urterako gizarte-langilearen kontratazioa sartzea; izan ere, kontratua 2019ko abenduaren 31n amaitzen da. Gaia aztertu ondoren, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.**– Onestea ALBA GARCÍA FERNANDEZ gizarte-langile andrea kontratatzea 2020. urte osorako, Arabako Foru Aldundiak hartutako azken erabakiaren kontura, lurraldearen oinarrizko gizarte-zerbitzuen banaketari dagokionez.

Aurreko puntuaren inguruko bozketa amaitutakoan, Alamillo Udaeta jauna bilkuratik irten da 14:15ean.

### **14.- 2019-20 EEP ELKARRIZKETEN EMAITZA**

Arloko teknikariak jakinarazi du elkarrizketak egin direla enplegu-planaren taldeak kontratatzeko, eta honako hauek hautatu dira:

<b>1. TALDEA</b> <b>ZOLAKETA</b>	FERNANDO MOSEGUERA LARRINAGA
	MARIA ESTHER BOLAÑO CANTA
	ALMUDENA SANTA CRUZ
	AITOR RODRIGUEZ RAMOS
	NOUR EDDINE SAHCAHE

<b>2. TALDEA</b> <b>SARBIDEA</b>	JON ANDONI DOBARAN CAMBRA
	JOSE LUIS PERAL VELASCO
	VICENTE BOLAÑO GOMEZ
	JULIA NOGALES FUENTES
	TAMARA DEL PRADO CUBERO

<b>3. TALDEA</b> <b>BASOKOA</b>	PEDRO NAVARRO MENA
	ENERITZ OLABARRIA LARRINAGA
	IBAI GARCIA URKIJO

MIKEL USSIA ARECHAGA
MARIA DEL MAR COBOS MARTINEZ

<b>1. TALDEA HIRIKOA</b>	MOHAMMED LAGLIL ER-RAZIQUI
	SERGIO ZUBIAUR GIL
	IONEL ENESCU
	ZAIDA FLOR VALDERRAMA MONTERO
	LIDIA RUIZ DE GORDEJUELA ALBA

<b>2. TALDEA BASOKOA</b>	MARK ALLEN WALKER
	IRINA CRISTINA LARRINAGA ECHEGUREN
	MIREN EDURNE UDAETA ALDAY
	AZIZ GHACHOI
	FATIHA DIDOUZ

<b>3. TALDEA HERRI LAGUNTZAILEAK</b>	GORKA SARRALDE UGARTE
	M <sup>a</sup> CONCEPCION ORUE MENDIBIL
	MINT WEHBIN MOHMED
	MARIA JOSE GARCIA CASTRO

<b>1. TALDEA HERRIAK</b>	JAVIER SOLATXI SANCHEZ
	HAMDI HORMA
	OUIJDANE ESSAIDI BELHADRI
	MOHAMMED BTITI
	M LOURDES SANTAMARIA SALMANTON
	IZASKUN PEREZ DEL PALOMAR GARCÍA

<b>HERRIAK</b>	BIHOTZA PÉREZ DE ALBENIZ EDROSO
	IZASKUN BARCENA SANZ
	JOSÉ ÁNGEL BIGURI CAMINO

Teknikariak jakinarazi du hori dela hasiera bateko aurreikuspena, baina hori aldatu daitekeela, lan-jardueran hautatutakoetan egon daitezkeen aldaketengatik eta hautaketa horrek LANBIDEK ezarritako ehunekoak eta baldintzak bete behar dituelako.

Azalpenaren ondoren gaiaren inguruko eztabaida egon da, eta alkateei eskatu zaie informazioa emateko dena gauzatzen den daten inguruan.

Azterketa amaitutakoan, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

## **15.- TURISMO-JARDUERAK**

Arloko teknikariak jakinarazi du zein den arlo honetan gauzatzen ari diren jardueren egoera; honako hauek dira jarduera horiek:

- Bisita antzeztuak egiten ari gara Artziniegan; Laudio, Artziniega, Aiara eta Okondon beste lau antzezpene gehigarri egingo dira, eta beste bat egingo da Amurrion abenduaren 5ean. Hori sare sozialetan eta irratian iragartzen ari dira.
- Bertako produktuak sustatzeko, Amurrio Bidean elkarteak egun bat antolatu du azaroaren 29an eta beste bat abenduaren 14an Laudion.
- Somontanora bisita bat egin dute 16 pertsonak, 9 pertsonak alde pribatutik eta 7 pertsonak alde publikotik, horien artean teknikariak eta politikariak.

Azterketa eta eztabaida amaitutakoan, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **14:50ak** direnean. Era berean, presidentean eta neuk, idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta, neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

**KUADRILLAKO PRESIDENTEA. ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.**  
**KUADRILLAKO IDAZKARIA. VIRGINIA CARCELÉN GARCÍA.**

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA**  
**DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

## **I. ERANSKINA**

**KLAUSULA ADMINISTRATIBO-EKONOMIKO ETA TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA. HORIEK NEGOZIATUTAKO PROZEDURAREN ESLEIPENA GIDATZEN DUTE, INONGO IRAGARKIRIK GABE, "AIARAKO KUADRILLAKO BALIABIDE ETA ZERBITZUEN GIDA 2020-23" IZENEKO LANA EGITEKO.**

### **I. KONTRATUAREN HELBURUA ETA EDUKIA.**

**1.- KONTRATUAREN HELBURUA.**- “Aiarako Kuadrillako baliabide eta zerbitzuen gida 2020-23” izeneko lana egitea da. Gida horren helburua da ezagutzera ematea eskualdeak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuak; hau da, enpresa, saltoki, zerbitzu, eta abar zein Kuadrilla osatzen duten bost udalerrietako bakoitzaren interes orokorreko datuak agertuko dira, baita Kuadrillaren informazioari dagozkion eranskinak ere; horiek Plegu hauetan aurrerago deskribatu eta zehaztuko dira.

Denbora-tarte horretan **gida bakarra egingo da, paperean, 2020-2023 urteei dagokiena; horrek barne hartuko ditu 2021. urtera arteko egindako aldaketak.**

Kontratua zerbitzuen administrazio-kontratua da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen (SPKL) 17. artikulua araber. Horrek barne hartzen ditu Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren Zuzendaritzaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak; zehazki kontratu txikiei eragiten die SPKLren 118.1 artikuluan ezarritakoaren araber.

**2.- KONTRATUAREN EDUKIA.**- “Aiarako Kuadrillako baliabide eta zerbitzuen gida 2020-23” egiteko lanak honako ezaugarri hauek ditu, lanaren gutxieneko eduki gisa:

- A) **EDUKIA:** gidak honako eduki hau izan beharko du, eta gutxieneko eduki gisa hartuko da hori:
- Azalak Kuadrillako udalerrri baten edo batzuen argazkia izan beharko du; hori Administrazioak zehaztuko du eta esleipendunak jarriko du.
  - Aiara Kuadrillaren batzordeburuaren sarrera/agurra eta argazkia (azken hori esleipendunak egin beharko du).
  - Gutxieneko esleipena 12 orrialde izango dira, Aiara Kuadrillari buruzko informazioa emateko argazki eta testuak sartzeko. Eduki hori Kuadrillak definitu, eman eta lagako du.
  - 2 orrialde nagusi egongo dira: horien edukia Kuadrillak zehaztuko du, eta entitate horrek aztertuko du egokia den mapa orokor bat eta Aiara Kuadrillaren kokapenaren mapa bat jartzea edo ez, baita Audio, Amurrio, Aiara, Artziniega eta Okondoko kaleen mapak edo bestelako informazioa jartzea edo ez.
  - Telefono-zenbakiak eta premiazko edo interes orokorreko helbideak.
  - Baliabide eta zerbitzuen gida; bertan honako hau sartu beharko da:

- a) Saltoki, industria, ostalaritza-zerbitzu eta abarren gida, alfabetikoki ordenatuta eta jardueraka; dena behar bezala eguneratuta. **Gidan sartutako enpresa eta zerbitzuen zerrenden epigrafeak sailkatzeko ezarritako irizpideak azaldu beharko da.**

Aipatutako gida egiteko, komenigarria da Aiarako Kuadrilla osatzen duten udalak elkarlanean aritzea, esleipendunari hainbat enpresa, saltoki eta jarduera ekonomikoetan altan dauden gainerako jarduera ekonomikoen zerrenda emateko. Datu mota horiengatik eta horien babes bereziengatik, esleipendunak abenduaren 5eko Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoak ezarritako eginbehar guztiak bete beharko ditu, baita hori garatzen duen legedia ere.

- b) Gida hau finantzatzen lagundu duten enpresen iragarkiak. Lizitatzailen eskaintzak gidaren alderdi horren inguruko informazioa izan beharko du; alderdi hori kontratazioa ematerako orduan balorazio-irizpideetako bat izango da.

Azalerako eta lehenengo orrialderako udalerrien argazkiak eta Kuadrillako batzordeburuaren argazkiak esleipendunak eman beharko ditu, eta erakunde honen oniritzia izan beharko du, baina Kuadrillari inongo kosturik eragin gabe.

Eduki instituzionala interes publikoko arrazoiengatik edota Aiarako Kuadrillako urteko beharengatik aldatu ahal izango da, eta ezingo da Kuadrillaren onespenean eta oniritzirik gabe ezarri.

Tokiko erakundeak dokumentu honi bere izena ematen dionez, aurretiaz galdetu beharko zaio eta dokumentua osatzen duen eduki osoarekiko oniritzia eman beharko du.

2021eko abenduaren 31era arte gidan egindako aldaketak esleipendunak eman beharko ditu jatorrizko PDF dokumentuan, *pendrive* batean, ondoren Kuadrillako webgunean jarri ahal izateko eta aldaketak paperean ez argitaratzeko.

## B) EZAUGARRIAK:

- Hasiera batean, argitaratuko den dokumentuaren kanpoko ezaugarriei eta formatuaren ezaugarriei dagokienez, aurreko urteetako tipologia erabiliko da; edonola ere, hori honako irizpide hauen arabera aldatu ahal izango da: instituzio eta ingurumenaren iraunkortasun-irizpideen arabera edo aldean adostasunaren arabera,
- Argitaratu, banatu eta eskualdeko etxebizitza eta instituzioetan emango den ale-kopuruan gutxieneko zenbateko bat ezartzen den arren, hori nahikoa izan beharko da kontratazioan adierazitako betebeharrak asetzeko, kontuan hartuta 14.600 etxebizitza inguruan banatu beharko dela. **Lizitatzaille bakoitzari dagokion eskaintzan sartutako kopia-kopurua zehaztu behar da, eta ezin izango da 14.750 ale baino gutxiagokoa izan.**

## C) BALDINTZAK:

Ale horiek egitea, argitaratzea eta Kuadrilla osatzen duten erakundeei helaraztea (5 udalak, Kuadrilla eta eskualdeko turismo-bulegoak), horiek banatzea eta eskualdeko etxebizitzetara eta aipatutako instituzioetara eramatea. Guztiz doakoa izango da Aiarako Kuadrillarentzat eta bertako herritar nahiz erakundeentzat; izan ere, esleipendunak

ordaindu beharko du guztia, eta finantzazioa lana egingo duen enpresa esleipendunak egingo dituen kudeaketan bidez sortuko da.

Enpresak nahitaez egin beharko ditu etxez etxe banatzeko beharrezkoak diren ale guztiak, Kuadrillako 5 udalerrietako herritar guztientzako; edonola ere, **ezin izango dira 14.750 ale baino gutxiago egin**, eta udalerrri bakoitzeko etxebizitza-kopuruaren arabera proportzionalki banatu beharko dira. Halaber, proportzionalki banatzeko nahikoa ale egon behar dira Kuadrillaren egoitzan eta 5 udaletako bakoitzaren egoitzan (udaletxeetan), baita Kuadrillako turismo-bulegoetan ere.

Ezinbestekoa izango da enpresa esleipendunak zirriborroen ereduak aurkeztea hautatutako Kuadrillako teknikariek lan egiteko, azken zirriborro bat lortu arte. Horri Kuadrillak dagozkion amaierako aldaketak eta zuzenketak egingo dizkio. Edonola ere, amaierako zirriborroa behin betiko inprimatu eta argitaratu aurretik, horri oniritzia eman beharko dio Kuadrillako organo eskudunak, eta **baldintza hori bete beharko du behin betiko argitaratu aurretik**. Amaierako zirriborroa zuzentzeko fasean, esleipendunak Kuadrillak agindutako behar adina aldaketa egin beharko ditu; hala ere, aldaketa horiek arrazoituta egon beharko dira, eta ezingo dute aldatu lanaren zati handi bat.

Lanaren helburua eta Gidaren informazioa paperean aurkezteaz gain Kuadrillaren webgunean jartzea ahalbidetuko duten ezaugarriak izatea, udalen webguneetarako estekekin batera. Horretarako, esleipendunak dokumentua PDF formatuan eman beharko du *pendrive* batean, eta, egongo balira, **hobekuntza gisa esleipendunak eskaini ditzakeen berrikuntza teknikoak ahalbidetuko dira**.

**2021eko abenduaren 31era arte egindako aldaketak esleipendunak gehitu beharko dizkio 2020. urtean aurkeztutako dokumentuari, eta Kuadrillari eman beharko dizkio 2022ko lehenengo 3 hilabeteetan.**

#### **D) GIDAREN ANTOLAMENDUA:**

Aurtengo Aiarako Kuadrillako Baliabide eta Zerbitzuen Gidaren banaketa eta antolamendua esleipendunak egin beharko du, Kuadrillak ezarritako ale-kopuruaren proportzioan (udalerrri bakoitzerako ezarritako etxebizitza-kopuruaren eta herri-irizpideen arabera). Aleak bost udalen egoitzetara, Kuadrillaren egoitzara eta turismo-bulegoetara bidaliko dira. Horrez gain, Kuadrillako herri guztietako herritarrei etxera bidaliko zaie. Hori guztia enpresa esleipendunak egin eta ordainduko du, eta Kuadrillak ez du inongo kosturik izango.

Gida udalerrietan etxez etxe banatzeko kontraturako, **Kuadrillak jarraitu beharreko prozedura ezarriko du, eta berari zein udalerrri bakoitzari jakinarazi beharko zaio noiz egingo den aipatutako banaketa.**

## **II. ESLEITZEKO MODUA. ERREGIMEN JURIDIKOA**

Kontratua **SPKLren 118. artikuluan ezarritako prozeduraren** bidez esleituko da, baita APKLEOri dagozkion eta indarrean dauden artikuluek ezarritakoaren arabera.

Plegu honek aipatzen duen kontratua azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera arautuko da, baita urriaren 12ko Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen 1098/2001 Errege Dekretuan indarrean dauden zatien arabera ere.

Administrazio Klausula Partikularren Pleguak, Baldintza Tekniko Partikularren Pleguak eta gainerako erantsitako dokumentuek kontratu-izaera izango dute. Kontratuak plegu honen edukiaren arabekoak izango dira, eta plegu honen klausulak dagozkion kontratuen parte izango dira.

**Plegu honen eta gainerako kontratu-dokumentuen arteko desadostasunen bat egotekotan, Administrazio Klausula Partikularren Plegua egongo da indarrean, bertan kontratuaren alderdiek izango dituzten eskubide eta betebeharrak agertzen direlako.**

Plegu hau, kontratua, horri atxikitako dokumentuak eta Administrazioak onartutako edozein jarraibide edo arau ez ezagutzeak, adostutakoa gauzatzean aplikatu badaitezke, ez du kontratista salbuetsiko bere betebeharrak gauzatzetik.

## **III. LIZITAZIO MOTA. KONTRATUAREN PREZIOA. KREDITUAREN EXISTENTZIA. PREZIOAREN AZTERKETA**

1.- Aiarako Kuadrillarentzat urteko lizitazio-tasa edo gehienezko aurrekontua **"0" euro** da. Horrek esan nahi du kontratu honen helburu den lanaren edukiak sortzen dituen gastuak enpresa esleipendunaren ardura izango direla, eta ezin izango zaio inolaz ere Kuadrillari inongo gasturik esleitu.

Lizitazioa: lizitatuzaileen eskaintza ekonomikoek ezin dute aipatutako aurrekontua gainditu. Kontratuaren prezioa izango da horren esleipenean dagoena, eta ezingo du Administrazioak ezarritako aipatutako gehieneko aurrekontua gainditu.

Horretarako, ulertuko da Administrazioak onartutako aurrekontuak kontratistak egin beharreko gastu zuzen eta zeharkako guztiak barne hartzen dituela, kontratatutako zerbitzua behar bezala gauzatzeko. Aurrekontuan sartuta daudela ulertuko da indarrean dauden xedapenen arabera sortutako gastu eta tasa berriak eta beste edozein lizentzia eta zergak, bai udalerrikoak, bai probintziakoak eta bai estatukoak.

2.- Kontratu hau betetzeko Administrazioarekiko sortzen diren betebeharrak ekonomikoek aurre egiteko beharrezko kreditua dago; horiek ordaindu egingo dira indarrean dagoen aurrekontuaren partidetan kargua egitearen bidez.

3.- Kontratua enpresa kontratistaren eskura gauzatuko da, eta ezin izango zaio, kontratua

gauzatzeko ezarritako urteetan, Administrazioari inongo hazkunderik proposatu, kontratu hau finantzatzeko modu bereziagatik.

Prezioen berrikuspenaren erregimen juridikoa SPKLren 103. artikuluan eta hurrengoetan eta martxoaren 30eko Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko 2/2015 Legean ezarriko da.

#### **IV. GAITASUNA. ENPRESA LIZITATZAILEAK**

##### **1.- ENPRESA LIZITATZAILEAK.**

###### Trebezia eta Gaitasuna.

**Administrazioan kontratatuak izateko gaitasuna dute pertsona natural edo juridikoez, Espainiakoek edo atzerrikoek, jokatzeko gaitasun osoa badute eta ez badaude SPKLren 74. artikuluan adierazitako kontratatzeko ezarritako debekuren batean; gainera, beren fidagarritasun ekonomiko eta finantzarioa edo profesionala egiaztatu beharko dute SPKLren 74. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, edo Legeak eskatutako kasuetan behar bezala klasifikaturik badaude.**

**Era berean, kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa den negozio- edo lanbide-titulua izan beharko dute.**

**Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.**

**Komunitatekoak ez diren enpresentzat, komunitatekoak direnentzat eta aldi baterako enpresa-elkarteentzat SPKLren 66. artikuluan eta hurrengoek eta 77. artikuluan eta hurrengoek ezarritakoaren arabera jokatu beharko da.**

**Aldi baterako enpresa-elkarteetan batzen diren banakako enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira eta ordezkari edo ahaldun bakar bat hautatu beharko dute elkartearen eskubideak gauzatu eta kontratuak sortzen dituen betebeharrak egiteko hori bera amaitu arte; edonola ere, mankomunitateko aginteak egon daitezke eta horiek zenbateko handiko ordainketak eta kobrantzak egin ahal izango dituzte. Lizitazioaren ondorioetarako, hori osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak eta bakoitzaren parte-hartzea adierazi beharko dituzte, baita aldi baterako batasuna eratzekeo konpromisoa bere gain hartzen dutela ere kontratua adjudikatzen bada.**

**Zehaztapen teknikoak edo kontratuaren prestaketa-agiriak prestatzen parte hartu duten enpresek, beren kabuz edo enpresa bateratu baten bidez, ezin izango dute eskaintzetan parte hartu, baldin eta parte-hartze horrek lehia askearen murrizketak sor baditzake edo akordio pribilegiatua suposatzen badu lizitazioko gainerako enpresei dagokienez.**

###### Kaudimena.

**a) Kontratuak egiteko, enpresaburuek egiaztatu beharko dute ekonomia- eta finantza-kaudimeneko gutxieneko egoera dutela, baita VI. klausulan ezarritako kaudimen tekniko eta profesionalak dituztela ere; horietan, gainera, horiek egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa erantsi beharko da. Baldintza hori sailkapen-baldintzaren bidez ordezkatu da, betiere SPKLn ezarritakoaren arabera.**

Sailkapena eskatu ezin denean, beharrezko kaudimena dagoela egiaztatzeko, enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimen eta baliabideetan oinarritu beharko du. Berdin du enpresa horiekin duen loturen izaera juridikoa; egiaztatu beharko du kontratua gauzatzeko beharrezko baliabideak dituela. Horretarako, aipatutako kaudimena aurkeztuko duen enpresaren zuzendaritza-organoak igorritako ziurtagiria aurkeztu beharko du; horrek egoera zein den egiaztatu beharko du, eta kaudimena aurkezten duen enpresak Kode Zibilaren 1257. artikuluan ezarritakoa onartu beharko du.

Aipatutako ziurtagiria kontratazio-organoak onesten badu, Administrazioak administrazio-bidez eska dezake mailegu-konpainiak enpresa kontratistarekin konpromisoa hartu duen kaudimena betetzea.

#### **b) Kaudimen tekniko edo profesional osagarriaren baldintzak.**

Kontratazio honetan soilik lan berdinak edo antzekoak egiten esperientzia handia duten pertsona juridiko edo fisikoek parte hartu ahal izango dute; kontratazioa egiteko, lizitatuak kaudimen hori egiaztatu beharko dute; kontratu honen helburu diren lan berdinek zerrenda egin beharko dute; zerrenda azkeneko bost (5) urteetan zehar egindako lanena izan beharko da. **Iraganean egindako lanen erreferentzia edo zerrendarekin batera, dagokion justifikazio dokumentala aurkeztu beharko da; hori kontratua esleitu zaion lizitatuari eskatuko zaio.**

**Kontratazio-mahaiak edo -organoak enpresaburuei aurkeztutako dokumentazio eta ziurtagirien inguruko informazioa eskatu ahal izango diete, edo dokumentu osagarriak aurkezteko eskatu.**

Parte hartzeko eskaera egitean eta, hala badagokio, proposamena aurkeztean, Preskripzio Teknikoen Ezaugarrien Koadroarekin batera plegu honen klausula guztiak onartzen dira inongo baldintzarik gabe, baita gainerako kontratuko dokumentuak, osorik eta salbuespenik gabe. Era berean, aurkeztutako datuen zehaztasuna eta kontratazioaren helburu diren prestazioak kontratatzeke beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

Interesdun **bakoitzak ezin du proposamen bat baino gehiago aurkeztu; berdin du zenbat bulegotan aurkez dezakeen.** Gainera, ezin izango da inolako proposamenik harpidetu beste batzuekin osatutako aldi baterako enpresa-elkarte batean, banaka egin izan bada. Printzipio hori urratzean, horrek aurkeztutako proposamen guztiak arbuiatzea eragingo du automatikoki.

Azaldutako eskakizunnez gain, lizitatuak guztiak frogatu beharko dute, Administrazioak eskatutako edozein momentutan, eskaintzak aurkezteko finantzaziorako epean ekonomia, finantza eta kaudimen teknikoa dutela.

## **V.- BERMEAK**

Ezarrিতako lizitazio motaren arabera, ez dira behin-behineko bermea eta behin betiko bermea eskatzen.

## **VI. ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA**

### **1.- PROPOSAMENEN AURKEZPENAREN TOKIA ETA DATA:**

Jarraian zehazten den dokumentazioarekin batera proposamenak posta bidez bidali edo Aiarako Kuadrillaren Erregistro Orokorrera bidali daitezke, Kuadrillako batzordeburuari zuzenduta, Encina Castresana Astarloa and.; Kuadrillaren egoitza Elespide auzoko 2. zenbakian (2. esk.) dago, Arespalditzan (Araba), P.K.: 01476. Telefonoa: 945-399122; epea irekita egongo da proposamenak aurkezteko azken eguneko 14:00ak arte. Epearen azken eguna ez bada balioduna, hurrengo lanegunera arte luzatuko dela ulertuko da.

Beste jakinarazpen batzuk eta argibide-eskaerak posta elektronikoko bidez egin daitezke: **cayala.virginia@ayto.arba.eus**.

Proposamenak **2020ko urtarrilaren 2ra arte aurkeztu ahal izango dira, egun hori barne, 14: 00ak arte.**

### **2.- PROPOSAMENEN EDUKIA**

**SPKLren 193. artikuluan eta hurrengoetan ezarrিতakoaren arabera eta AOren 80. artikuluan** arabera, lizitatuzaileak itxitako **hiru gutun-azal aurkeztu beharko ditu (A, B eta C)**, jarraian adierazten den dokumentazioarekin batera. Horietariko bakoitzean parte hartzen duten lizitazioa adierazi beharko dute, baita enpresa edo hautagaiaren izendapena eta proposamena sinatzen duen pertsonaren izen-abizenak eta kargua ere. Hori guztia irakurterraza izan beharko da. Gutun-azalak, nahitaez, esleipendunak edo hori ordezkatzeko duen pertsonak sinatu beharko dituzte. Gutun-azalek honako izen hauek izan behar dituzte:

- "A" gutun-azala: Administrazio Dokumentazioa.
- "B" gutun-azala: "MEMORIA" dokumentazioa.
- "C" gutun-azala: Proposamen ekonomikoa.

Eskaera aldi baterako enpresa-elkarte batean batu diren hainbat enpresek egiten badute, enpresa bakoitzeko ordezkariak sinatu beharko du.

Eskaera eta dokumentazioa postaz bidaltzen badira, Correosen bulegoan dena bidali zen data justifikatu beharko da, eta Administrazio Erregistro Orokorrari jakinarazi beharko zaio eskaera bidali dela. Hori egun berean egin beharko da telefono, fax edo telegrama bidez. Bi ekintzak, eskaera eta erantsitako dokumentazioa bidaltzea eta bidalketa kontratazio-organoari jakinaraztea, aurkezteko epea amaitzeko data eta ordua baino lehen egin beharko dira.

Bi ekintzetako bat ez bada gauzatzen, ez da dokumentazioa onartuko bidalketa-epea amaitzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen bada. Gainera, dokumentazioa jasotzeko data igaro ondorengo hamar egun baliodunak igarotzean ez bada hori aurkeztu, ez da inolaz ere onartuko.

Proposamen bat aurkeztu ondoren, ezin izango da kendu inolaz ere, justifikatutako kausa batengatik izan ezik.

**A GUTUN-AZALA: ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA:** honako izenburu hau izan beharko du:

**"A GUTUN-AZALA: lizitaziorako Administrazio Dokumentazioa, SPKLren 118. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez, "AIARAKO KUADRILLAKO BALIABIDE ETA ZERBITZUEN GIDA 2020-23" egiteko zerbitzua kontratatzeko.** Edukia honako hau izango da:

**a) Lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena.** Hori plegu honetan (**I. Eranskina**) horretarako dagoen ereduaren antzekoa izan daiteke. Horrez gain, adierazi beharko da SPKLren 71. artikulutik 73. artikulura bitartean ezarritako **kontratatzeko debekuetan ez dagoela**, baita Administrazio Publikoarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela ere, batez ere **plegu honen 4 b) klausulan** ezarritako gaitasuna eta kaudimena. Halaber, espresuki adierazi beharko du bere zerga-ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela, baita kontratuaren helburuarekin lotutako jarduera ekonomikoen zergan dagokion epigrafean altan dagoela ere.

Hainbat enpresaburuk **aldi baterako enpresa-elkarte** bat osatzen badute lizitaziora joateko, horietariko bakoitzak aurreko paragrafoan adierazitako adierazpena aurkeztu beharko du, eta sinatzen duten enpresaburuen izen-abizenak eta egoera adierazi beharko dituzte, baita horietako bakoitzaren parte-hartzea zein kontratuaren esleipendun izatekotan aldi baterako enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa ere. Gainera, ordezkari edo ahaldun bat hautatu beharko dute. **Lizitatzailleak aurkeztutako dokumentazio guztia dokumentazio originala edo kopia autentiko edo konpultsatuak izan beharko dute, indarrean dagoen legeriaren arabera.**

**b) Helbide elektronikoa:** lizitatzailleak helbide elektronikoa eman beharko du, eta Administrazioak horra bidaliko dizkion jakinarazpenak.

**c) Gutun-azal honen dokumentazio guztia, paperezko formatuan emateaz gain, pendrive batean jasotako PDF dokumentu batean emango da.**

**"B GUTUN-AZALA: MEMORIAREN DOKUMENTAZIOA:** honako izenburu hau izan beharko du:

**"B GUTUN-AZALA: lizitaziorako Memoriaren Dokumentazioa, SPKLren 118. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez, "AIARAKO KUADRILLAKO BALIABIDE ETA ZERBITZUEN GIDA 2020-23" egiteko zerbitzua kontratatzeko.**

Lizitatzaille bakoitzak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazioa eta Kontratazio Mahaiak horren oinarri gisa erabiliko duen dokumentazioa eman behar ditu.

Lizitatzaileren batek ez badu alderdi horren inguruko irizpideekiko dokumentazioa aurkezten edo horrek ez baditu aurreko paragrafoetan adierazitako baldintza guztiak betetzen, lizitatzaille horren proposamena ez da irizpide horren arabera baloratuko.

Kontuan hartu ahal izateko, dokumentazio guztia lizitatuak sinatu beharko du, edo lizitatuak sinatutako dokumentuen zerrenda bat erantsita izan. Zerrenda horretan, bere erantzukizunpean, lizitatuak adierazi beharko du emandako datuak egiazkoak direla. Administrazioak eskubidea du egiazkotasuna edozein unetan egiaztatzeko, bai kontratua esleitu aurretik, bai indarrean egon bitartean; horretarako, egiaztapen hori berak egin ahal izateko lizitatuari edo esleipendunei dokumentazio edo txosten osagarriak eskatu ahal izango dizkie.

Datu horiek ez badira zehatzak edo faltsuak badira, eskaintza baztertuta geratuko da, edo, bidezkoa bada, kontratua ebatziko da eta osatutako bermea galduko da, baita horren ondorioz sortutako kalte-ordainak eta erantzukizunak eskatu ahal izateko ahalmena ere.

Adierazitakoaz gain, gutun-azal honetan gutxienez honako atal hauek egongo dira:

- a) **MEMORIA:** eskaintzen den lanaren proiektua deskribatu behar duen enpresaren edukiaren azalpena. Plegu hauetan garatutako lanaren helburuaren puntuak azaldu beharko dira, eta, batez ere, iragarkiaren arabeko gidaren iragarleen iragarkien kostuaren zerrenda argi bat agertu beharko da. Azaltzea, soilik, lan honen helburu berdina edo antzekoa egiten lizitatuak duen esperientzia.
- b) **Ebaluazio eta negoziatorako erabiliko diren aspektuei buruzko dokumentazioa.**
- c) **Eskaintzak izan ditzakeen hobekuntzen azalpen garatua.** Hobekuntza horiek, kontratazio-organoak onartzekotan, kontratuaren parte izango dira eta berariaz sartuko dira.
- d) **Gutun-azal honen dokumentazio guztia, paperezko formatuan emateaz gain, pendrive batean jasotako PDF dokumentu batean emango da.**

**"B GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA:** honako izenburu hau izan beharko du:

**B GUTUN-AZALA: Lizitatorako Proposamen Ekonomikoa, SPKLren 118. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez, "AIARAKO KUADRILLAKO BALIABIDE ETA ZERBITZUEN GIDA 2020-23" egiteko zerbitzua kontratatzeko.**

Eskaintza ekonomikoaren edukia plegu honen II. Eranskineko ereduaren arabera idatziko da, kontratazio-organoak oinarritzotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragotziko duten akats edo ezabaketarik gabe. Horrelakorik egongo balitz, proposamena baztertuta geratuko litzateke.

Proposamen ekonomikoan (ez du plegu honen 6. klausulan ezarritako lizitazio-aurrekontua gainditu beharko) adierazi beharko da, partida independente gisa, ordaindu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZa) zenbatekoa.

Lizitatuak kontratuaren xede diren zerbitzu guztiei erreferentzia eginda aurkeztu beharko dituzte beren proposamenak.

Lizitatuak bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du kontratuaren objektuari dagokionez, *aldaerak edo alternatibak aurkeztu ahal izan gabe* (SPKLren 139. artikulua).

Aldi baterako enpresa-elkarte batean lizitatu duen enpresaburu batek ezingo du, aldi berean, indibidualki proposamenik aurkeztu ezta lizitazioan parte hartzen duten aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan egon. Debeku hori ez betetzeak (SPKLren 139. art.) sinatutako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du.

**Gutun-azal honen dokumentazio guztia, paperezko formatuan emateaz gain, pendrive batean jasotako PDF dokumentu batean emango da.**

Administrazioak esleipena egin baino lehen eta ondoren eta kontratua indarrean egon bitartean egiaztatu ahal izango du gutun-azalean dauden dokumentuen edukiaren egiazkotasuna. Enpresak aurkeztutako datuak eta egoerak faltsuak izango balira, kontratua bertan behera utzi ahal izango litzateke, kontratistari egotzi ahalko zaion ez-betetzeagatik. Hori gertatuko balitz, osatutako behin betiko bermea galduko litzateke edo horren zenbatekoa beteko lukeen kalte-ordaina eman beharko litzateke bermea ez bada osatu edo ez bada eskatu; horrez gain, Administrazioari sortutako kalteak ordaindu beharko litzkieke jasotako bermea ez bada nahikoa.

## **VII. DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA**

### **1.- KONTRATAZIO-MAHAIA ETA PROPOSAMENEN AZTERKETA.**

SPKLren 326. artikuluan eta APKLAren 79. artikuluan ezarritakoaren arabera, Negoziazio Mahaiak aurkeztutako proposamenak aztertu beharko ditu, eta, ondoren, Kontratazio Mahaia osatu beharko da.

Lizitazio honetarako Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

**Mahaiburua:** Kuadrillako batzordeburua Encina Castresana Astarloa andrea

**Mahaikideak:** honako 2 kide hauek:

**Kontu-hartzaitza teknikaria:** Gianfranco Ghio Alonso

**Kuadrillako gerente-idazkaria:** Virginia Carcelén Garcia.

**Idazkaria:** Ibon Lazkano Aretxabala

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, Kontratazio Mahaiak ekitaldi pribatu batean lizitatuak aurkeztutako A gutun-azalean dagoen dokumentazio orokorra kalifikatuko dute. Aurkeztutako dokumentazioan kalte materialik egongo balitz, fax, telegrama edo posta elektronikoz bidez jakinaraziko lioke dagokion lizitatuak eta jakinarazpen hori jasota utziko luke espedientean. Lizitatuak kalte konpontzeko gehienez ere hiru egun baliodun emango zaizkio. Hala ere, lizitatuak baten dokumentazioak akats nabarmenak edo zuzendu ezin diren gabezia materialak baldin baditu, ez da lizitaziorako onartuko.

Aurreko paragrafoan aipatutako zuzenketaz gain, Kontratazio Mahaiak, lizitatuak kaudimenaren egiaztapena osatzeko, egokitzen jotzen dituen nahi adina azalpen eskatu ahal izango ditu aurkeztutako egiaztapen eta dokumentuen inguruan. Horrez gain, dokumentu osagarriak eskatu ahal izango ditu; eskaera hori gehienez ere bost egun baliodunen epean osatu beharko da, proposamenak onetsi direla ezarri baino lehen.

## **VIII. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK ETA NEGOZIAZIO-FASEA**

### **1. -ESLEIPEN-IRIZPIDEAK ETA NEGOZIAZIO-FASEAREN HELBURUA**

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza onuragarria ezartzeko, honako esleipen-irizpideak aintzat hartuko dira. Lortu ahal izango den **gehieneko puntuazioa 50 puntukoa izango da.**

**Eskaintza ekonomiko onuragarriena: 10 puntu.** Prezio onuragarriena izango da onura handiena eskaintzen duena iragarleen gidako iragarkiekiko. Puntuazio handiena emango zaio iragarleentzat kostu txikiena duen eskaintzari.

**Argitaratutako gidaren diseinua: 10 puntu.** Atal honetan beste ezaugarri batzuk baloratuko dira, batez ere, diseinu grafikoa eta edukia. Horiek sartzea lizitatzailleek proposatu dezakete, ez badaude plegu hauetan sartuta.

**Hobekuntza teknikoak: 30 puntu.** Pleguetan ezarrita ez dauden teknologia berrien beste hobekuntza batzuk baloratuko dira, bereziki lizitatzailleak Kuadrillako webgunean jarriko duen amaierako gidaren dokumentuari dagokionez. Ez da dokumentu estatiko bat izan behar. Dena bateragarria izan beharko da, eta Kuadrillak dituen baliabideekin aplikatu ahal izan beharko da. Honela banatuko dira:

- Gidan sartuta dauden baliabide eta zerbitzu guztien webgune eta mezu elektroniketan gidaren iragarkiak agertzea, **8 puntu**
- Gidaren banaketa, gainera, gidan bertan jarritako eskualdeko baliabide eta zerbitzu guztiei egin beharko zaie, **7 puntu**
- Eskualdeko intereseko informazioa duten pegatinak sortzea, **8 puntu**
- Pleguetan ezarrita ez dauden teknologia berrien beste hobekuntza batzuk baloratuko dira, hau da, lizitatzailleak Kuadrillako webgunean jarriko duen amaierako gidaren dokumentuari dagozkion guztiak. Ez da dokumentu estatiko bat izan behar, eta QR kodeak sartzea baloratuko da. Hobekuntza horiek baloratuko dira soilik Kuadrillako baliabide teknikoekin ezarri ahal badira edota esleipendunak hori ezartzeko Kuadrillari beharrezko baliabideak doan ematen badizkio, **7 puntu.**

Lizitatzailleek puntuetan berdinketa bat lortzen badute, berdinketa honako irizpideen arabera puntu gehien lortzen dutenen alde hautsiko da; irizpideak lehentasunezkoak izango dira, eta, ondorioz, baztertzailleak izango dira, honako zerrenda honen ordenaren arabera:

- Hobekuntza teknikoen eskaintzan puntu gehiago lortu dituztenen alde
- Mota honetako lanak egiten esperientzia handiena dutenak
- Zozketa bidez

Hasiera batean, kontratazio-organoak neurrigabe edo ausarkeriazko eskaintza gisa ezarriko ditu SPKLren 149. artikulua hala definitutako eskaintzak.

## **2.- PROPOSAMENEN SAILKAPENA**

Jarraian, lizitatzailleek aurkeztutako eta neurrigabe edo ausarkeriazkoak ez direla ezarri diren eskaintzak baloratuko dira. Horretarako, beharrezko txosten teknikoak jaso ahal izango ditu eta kontratazio-organoari proposatuko zaio kontratua ekonomikoki eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileri esleitzea.

Klasifikatu egingo dira, handienetik txikienera, neurrigabeak edo ausarkeriazkoak ez diren proposamenak. Horiek guztiak esleipen-irizpideen arabera sailkatuko dira, eta horretarako

nahi adina txosten tekniko eskatu ahal izango dira, eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerak zehazteko.

Bi proposamen edo gehiagok berdinketa lortzen badute, esleipenerako oinarri diren irizpideen arabera onuragarrien gisa, lehentasuna izango dute, betiere beharrezko egiaztapenak aurkeztu badituzte, honako enpresa hauek: **Kuadrillako webgunean gida sartzeko eskaintza teknologiko onenak egiten dituztenek, estatikoa ez den dokumentu gisa, eta, jarraian, honelako lanetan esperientzia duten lizitatzailerak. Berdinketak jarraituko balu, zozketa bidez hautsiko litzateke.**

### **3.- ESLEIPENA EGIN AURREKO DOKUMENTAZIOA ESKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA**

#### **ESLEIPENAREN AURREKO DOKUMENTAZIOA ESKATZEA**

Kontratazio-organoak eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerari eskatuko dio **hamar (10) egun baliadunen epean**, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, jarraian zehaztutako dokumentazioa aurkezteko:

- Arabako Foru Aldundiak eta lizitatzaileraren zerga-egoitzako Zerga Administrazioak emandako ziurtagiria. Horrez gain, zerga-ordainketen menpeko jarduerak egin diren tokiko Zerga Administrazioak emandako egiaztapenak ere. Horietan egiaztatutako beharko da lizitatzailerak bere zerga betebeharrak egunean dituela.

Merkataritza-sozietateak ez diren edo nortasun juridikorik gabekoen kasuan, egiaztapenak sozietatearen, enpresaren edo establezimenduaren titularrari edo titularrei eskatuko zaizkie.

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren azken ordainagiria, edo aipatutako zergaren matrikularen alta, kontratuaren objektuari dagokion epigrafean. Era berean, erantzukizunpeko adierazpen batekin osatuko da, eta horrek adierazi beharko du aipatutako zergaren matrikulan ez dela baja hartu.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren egiaztapenak; horrek adierazi beharko du erakunde horren kuoten ordainketa egunean dagoela.
- Eskabidea bere izenean edo agente gisa aurkeztu duen pertsonaren **nortasun agiri nazionalaren fotokopia**.
- Osaera-eskritura eta, bidezkoa bada, **Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotearen bidez egiaztatutako pertsona juridikoen jarduteko** enpresariaren gaitasuna, aplikagarria zaion merkataritza-legeriaren arabera eska daitekeen baldintza bada. Edonola ere, jarduteko gaitasunaren egiaztapena osaera-eskritura edo -dokumentuaren, estatutuen edo sortze-agiriaren bidez egingo da. Bertan jarduera arautzen duten arauak egon beharko dira, eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta.

Espainiakoak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak diren enpresariaren jarduteko gaitasuna, enpresari horiek kokatuta dauden estatuko legeriarekin bat datorren erregistroan inskribatzea edo zinpeko aitortze bat edo ziurtagiri bat

aurkeztea; erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan izan beharko da, Europar Batasuneko xedapen aplikagarrien arabera. Atzerritarrak diren gainerako enpresariak, Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorren arabera, dagokion estatuan edo konsulatuko bulegoetan, enpresaren egoitza dagoen tokiaren arabera.

- Horretarako agertuko diren pertsonen edo beste baten izenean proposamenak sinatzen dituzten pertsonen aldeko nahikoa indar. Lizitzailea pertsona juridikoa izango balitz, botere hori Merkataritza Erregistroan agertu beharko litzateke. Edonola ere, ez da beharrezkoa Merkataritza Erregistroan inskribatzea jarduera zehatz baterako bada, Merkataritza Erregistroko Araubidearen 94.1.5 artikuluen arabera.
  
  - SPKLren 74. eta 76. artikuluen artean ezarritakoaren arabera enpresariaren **ekonomia- edo finantza-kaudimena** justifikatzen dutenek, aitorpen egokiaren, edo, hala badagokio, arrisku profesionalengatik kalte-ordainen aseguru baten bidez. Lizitzaileak sailkapen-ziurtagiria aurkeztean, edo organo eskudun batek horren benetako kopia aurkeztean, bere kaudimenaren egiaztagiriak aurkeztetik salbuetsita geratuko da.
  
  - **Kaudimen teknika edo profesionala** justifikatzea enpresaren eskura dauden bitartekoen eta baliabide material eta pertsonalen deskribapenarekin, enpresaren obra nagusien curriculum laburrekin (kontratuaren objektuarekin zuzenean erlazionatutakoak) eta **aipatutako lana egin duten enpresen ziurtagiriarekin**.
  
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan inskribatuta dauden lizitzaileek Erregistroko arduradunaren abokatuek emandako ziurtagiriaren kopia baino ez dute aurkeztu behar. Horrela, aurreko ataletan adierazitako dokumentazioa aurkeztetik salbuetsita egongo dira (baldin eta Kontratisten Erregistroan inskripzio-ziurtagirian sailkapen hori badago eta indarrean badago), soilik gaitasunaren eta kaudimenaren inguruabarrak egiaztatzen dituzten dokumentuekiko. Horien egiaztagiria ziurtagiriaren beraren bidez egin daiteke.
  
  - Lizitzaileen eta sailkatutako sozietateen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitzaileek aurreko atalean ezarritako ondorio berdinekin, inskribatze-ziurtagiria eta erantzukizunpeko adierazpen bat (egiaztagiriak adierazitako egoerak aldatetarik izan ez duela adierazten duena) entregatu ahal izango dute. Atzerriko enpresek edozein ordenetako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioari men egiteko adierazpena eman ahal izango dute, eta uko egingo diote lizitzaileari dagokion kanpoko jurisdikzioko eskumenari. Aurreko guztia SPKLn ezarritakoaren arabera egingo da.
- Adierazpen hori errepikatu beharko da, esleipenduna izatekotan, kontratua sinatuko den dokumentuan. Edonola ere, kontratazio-organoak, egokia baderitzo, dagokion Erregistroan kontsulta bat egin ahal izango du.
- Enpresa-elkarte baten parte izatearen adierazpena, hala badagokio.

Aurretiaz aipatutako epean ez bada dokumentazio hori jasotzen, lizitzaileak ez badu justifikatzen egunean dituela bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta ez badu kontratazio honen helburu antzekoa edo bera duten lanak egin izan dituela egiaztatzen, kontratazio-organoak hurrengo lizitzaileari edo lizitzaileei esleipen berri bat eman ahal izango die, eskaintzen ordenaren arabera. Hori egingo da posible bada eta esleipendun berria ados badago; horri hamar egun baliaduneko epea emango zaio dagozkion zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko eta dagozkion bermeak

osatu dituela egiaztatzeko.

Aurkeztutako proposamenak, onetsitakoak zein ireki gabeko edo ireki ondoren gaitzetsitakoak bere espedientean artxibatuko dira. Kontratua esleitu ondoren eta errekursoak jartzeko epea horiek jarri gabe igaro ondoren, proposamenekin batera dagoen dokumentazioa interesdunen eskura egongo da.

## **KONTRATUAREN ESLEIPENA**

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu zuen lizitatuzaileari eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak kontratua esleituko dio hurrengo bost egun baliodunetan.

Esleipenak kontratuaren behin betiko terminoak zehaztu eta ezarriko ditu.

Esleipenaren ebazpena arrazoituta egon beharko da, eta zuzenean esleipendunari eta gainerako lizitatuzaileei jakinaraziko zaie. Jakinarazpenak beharrezko informazioa izan beharko du baztertutako lizitatuzaileak edo hautagaitzak, SPKLren 150. artikulua eta hurrengo arabera, esleipen-erabakiaren aurka behar bezala ezarritako errekurtoa jartzeko. Edonola ere, jakinarazpen horretan kontratua sinatzeko epea jakinaraziko da.

Jakinarazpena posta elektronikoz egin ahal izango da, lizitatuzaile edo hautagaiek emandako helbidera proposamena aurkeztean, ekainaren 22ko Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legearen 28. artikulua arabera. Hala ere, jakinarazpena baztertzeko epea, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengo arabera, bost eguneko izango da.

Ezin izango da lizitazio bat hutsik dagoela esan pleguan ezarritako irizpideen arabera onartu daitekeen eskaintza edo proposamen bat badago.

Kontratazio-organoak esleipena egin baino lehen kontratua esleitzeari uko egin ahal izango dio, espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik, edo esleipen-prozedura bertan behera utzi, kontratua prestatzeko edo esleipen-prozedurarako arauak modu konponezinean hautsi badira. Bi kasuetan, hautagai edo lizitatuzaileei dagokien zenbatekoarekin konpentsatuko zaie.

Kontratua esleitu ondoren eta esleipen-ebazpena jakinarazi ondoren bi hilabete igarotzen badira inongo errekurtsorik jarri gabe, interesdunen eskura geratuko da proposamenekin batera dagoen dokumentazioa. Horiek ez badute dokumentazioa aipatutako epea igaro ondorengo hilabetean erretiratzen, kontratazio-organoak ez du hori gordetzen jarraitzeko ardurarik, behin-behineko bermearen egiaztagirietan izan ezik; horiek interesdunei entregatzeko gordeko dira.

## **IX. KONTRATUA SINATZEA**

Kontratua sinatuko da lizitazioaren baldintzetara egokitutako administrazio-dokumentu batean, **lizitatuzaile edo hautagai esleituak jakinarazpena jaso eta hamabost egun baliodun igaro baino lehen**. Aipatutako dokumentuak beste edozein erregistro publiko izateko nahikoa titulu

izango du. Kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura egongo dira eskritura publikoak egiteak sortzen dituen gastuak. Esleipenaren baldintzak aldatzea eragingo duten klausulak ezin izango dira dokumentuan sartu, SPKLren 153. legearen arabera.

Hala ere, kontratazio-arloan kontratuan errekurtsio berezi bat jartzeko aukera badago, sinatzea ezin izango da egin lizitatuzaileei edo hautagaiei esleipenaren jakinarazpena egin ondorengo hamabost egun igaro baino lehen. Epe hori igaro ondoren, kontratazio-organoak esleipendunari kontratua formalizatzeko eskatuko dio bost egunetik gorakoa ez den epean, eskaera jaso zenetik aurrera zenbatzen hasita, aipatutako hamabost eguneko epea igaro ondoren, baldin eta kontratuaren sinatzea etetea dakarren errekurtsorik aurkeztu ez bada edo esleipen-egintzaren etetea indargabetzen duen ebazpena ematen bada.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epean formalizatu ez bada, Administrazioak hitza eman dezake, hala badagokio, behar zuen behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betiko bermatzeko. Edonola ere, behin-behineko bermea ezin bada osatu, Administrazioak I-A eranskinean adierazitako behin betiko bermea konfiskatu ahal izango du, kontratuaren aurrekontuaren % 3 baino gutxiago bada.

Kontratua sinatzearekin batera, Administrazio Klausula Partikularren Plegua sinatu beharko du esleipendunak, baita Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua eta kontratua osatzen duten gainerako dokumentuak ere.

## **X. KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA ETA MODUA**

Lan honen edukia SPKLren 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera arautu beharko da.

**1.- GAUZATZEAREN ZUZENKETA ETA IKUSKAPENA.** Enpresa kontratatzaileak ordezkari bat izendatuko du zerbitzuaren gauzatzea zuzendu eta koordinatzeko; pertsona hori izango da adostutako zerbitzua behar bezala gauzatzen dela egiaztatu, koordinatu eta ikuskatuko duena, SPKLren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Funtzio hori gauzatzeko, haren agindupean egongo diren laguntzaileak izan ditzake pertsona horrek; horiek beren ezagutzen araberako lanak egingo dituzte, eta kontratuaren Zuzendaritza osatuko dute.

Aipatutako pertsona horrek zerbitzua emateko beharrezkoak diren argibideak jasoko ditu hautatutako Kuadrillaren ordezkariaren eskutik; Kuadrillako pertsona hori esleipendunari jakinaraziko zaio, kontratua sinatu ondorengo hamabost egun baliodunetan.

Aldaketak kontratatzaileari jakinaraziko zaizkio idatziz eta berehala.

**2.- LANAK GAUZATZEA.** Kontratua plegu honetan ezarritako klausulen arabera gauzatuko da, eta Administrazioak kontratistari interpretatzeko emandako argibideen arabera ere.

Kontratua kontratistak gauzatuko du SPKLn ezarritako erantzukizunen arabera.

**3.- LAN ETA KALTEEN ERANTZUKIZUNA.** Enpresa esleipendunak izango du egindako lanaren kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita emandako zerbitzuen kalitatearena ere. Horrez gain, erantzulea izango da Administrazioari edo hirugarrenei sortutako kontratuaren hutsegite, kalte, akats, metodo desegoki edo ondorio desegokiei dagokionez. Esleipendunaren kontura joango da hirugarrenei sortutako kalteak ordaintzea.

Zigorren zenbatekoak ez du kalte-ordaina salbuesten Administrazioak eskatzen badu kontratistaren atzerapenak sortutako kalteengatik.

**4.- EPEAK BETETZEA.**- Lizitzaileak kontratua gauzatzeko epea eta Administrazioak ezarritako epe partzialak bete behar ditu.

**Gidaren edukia eta diseinua osatzeko data 2020ko apirilaren 15a izango da; data horretarako Kuadrillak behin betiko alea onartu behar izango du. Era berean, gida bidaltzeko epea 2020ko maiatzaren 15a izango da; data horretarako gida banatuta egon beharko da.**

Hobekuntzetan proposatutako teknologiak aplikatzeari dagokionez, aldeek adostutakoa egingo da, baina, edonola ere, **2020ko ekainaren 15a baino lehen.**

Kontratista berandutzan eritzeak ez du Administrazioaren alde aurreko agindurik beharko. Atzerapen horren ondoriozko zigorrak ezartzea kontratazio-organoak automatikoki aplikatuko du.

Edozein epe partzial edo amaierako epea iristean, kontratistari egotzi ahal zaizkion berandutze-arrazoiengatik, Administrazioak nahieran erabaki ahal izango du, SPKLren 193. artikuluan ezarritako moduan, kontratua ebaztea behin betiko bermea galduz edo aipatutako artikuluan ezarritako zehapenak ezartzearen bidez.

Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatu bada, SPKLren 193. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jokatu da.

## **5.- KONTRATATUTAKO LANARI DAGOZKION ARAU OROKORRAK**

1.- Enpresak lana gauzatzeko beharrezkoak diren ekipoak eta bitarteko laguntzaileak eman beharko ditu, baita bere proposamenean konprometitu dituen guztiak ere, kontratuan ezarritako epeetan.

Administrazioak egokitzat jotzen ez duen edozein elementu ukatu ahal izango du, eta, era berean, enpresak Administrazioarekiko ebazpenerako erreklamazioa egiteko eskubidea izango du, Zuzendaritzak idatziz egin duen jakinarazpenetik zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epean.

2.- Enpresa esleipendunak beharrezko langileak kontratatu beharko ditu lanak egiteko. Aipatutako langileak soilik enpresaren kargura egongo dira; horrenbestez, enpresak, patroia den heinean, bere eskubide eta betebeharrak gordeko ditu eta lan-arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, baita laneko segurtasun eta higienekoak ere. Hori guztia bere langileekiko

izango da, eta jarraian dena zehatzago azalduko da.

## **6.- LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI EGINDAKOAK**

1.– Enpresa kontratistak kontratatutako lanak behar bezala egin behar izango ditu, eta bertan dauden akatsak konpondu; edonola ere, egoerak ez dio inongo eskubide edo betebeharririk eman edo kenduko. Administrazioaren ordezkariak horiek aztertu edo aitortu gabe egiaztapenak egin beharko dira, edota balorazio edo egiaztapen partzialak.

2.– Erantzukizunetik salbuetsita egongo da obra akastunak edo gaizki egindakoak Administrazioaren aginduaren berehalako eta zuzeneko ondorioak direnean.

3.– Administrazioak uste badu kontratuaren preskripzio teknikoak ez direla bete, APKLAOren 203. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, eta prestazioak hori hartzeko baldintzak ez baditu betetzen, APKLAOren 204. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, SPKLren 192. artikuluan ezarritakoarekin lotuta.

## **7.- LANAREN HARRERA**

Kontratuaren helburua hartzea SPKLren 201. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

Lana jasotzeko epea **hilabete batekoa izango da, X artikuluko honen 4. atalean ezarritako harrera partzialetako bakoitza jaso ondoren.**

Obra kontratistaren arriskuan egingo da SPKLren 197. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta sortu ditzakeen kalteak ordaindu beharko ditu, SPKLren 196. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## **XI. ORDAINKETAK**

Kontratistak ez du inolako ordainketarik izateko eskubiderik izango, lan hau finantzatzeko modua oso berezia delako.

Administrazioarentzat lizitatzailen eskaintzan edozein motatako ordainketaren bat ezarriko balitz (ekonomikoa zein beste edozein motatakoa), Administrazioaren alde egiteko modua aurkitu beharko da, eta hori ezin izango da lana amaitu ondoren egin, aldean adostasuna lortu ezean.

## **XII. IZAERA ESPEZIFIKOKO KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK**

LANEKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA LANEKO OSASUN ETA SEGURTASUNEKO ARLOETAN kontratistak bete beharko ditu indarrean dauden xedapenak, eta, zehazki, dagokion kolektiboaren hitzarmenaren edo lan-ordenantzaren xedapenen arabera. Enpresak beharrezkoak diren segurtasun- eta higiene-neurriak hartuko ditu, laneko arriskuen prebentzioaren arabera. Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera ezarritako laneko arriskuen prebentzio-arloan dituen betebeharrak mantenduko ditu, kontratatutako lana hasi baino

lehen.

### **XIII. KONTRATUA GAUZATZEKO BEHARREZKO GASTUAK**

Kontratatzen betebeharra izango da lizitazioaren iragarki ofizialek sortutako gastuak ordaintzea (behin soilik eta iragarki bakarra), baita kontratua dokumentu publiko batean sinatzean sortutakoak ere. Gainera, lizentziak, dokumentuak edota organismo ofizial edo partikularrak lortzeko gastuak ordaindu beharko ditu. Era berean, indarrean dauden xedapenen arabera adierazten diren modu eta zenbatekoan aplikagarriak diren zergak, betebeharrak, tasak edo kalte-ordainak eta gainerako gastuak aplikagarriak dira.

### **XIV. KONTRATUAREN LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA**

Kontratua lagatzean, SPKLren 214. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuko da. Esleipendunak kontratuaren zati bat hirugarrenei kontratatzean, SPKLren 216. artikuluan ezarritakoaren arabera egin beharko du, eta azpikontratisten eta hornitzaileen ordainketa SPKLn ezarritakoaren arabera egin beharko da.

### **XV. KONTRATUAREN ALDAKETA**

Kontratazio-organoak kontratua aldatzeko eskumena du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 214. artikuluan eta APKLAren 202. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

Kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak Lan Programa eguneratu beharko du.

Aurrekontuan egindako aldaketak kontratua ebazteko arrazoi izan daitezke, nahiz eta jarraikoak izan eta modu isolatuan edo elkartuan kontratuaren prezioa aldatzea eragin. Aldaketa hori kontratuaren jatorrizko prezioaren % 20 baino gehiagokoa izan beharko da gutxi gorabehera, BEZa zenbatu gabe; edonola ere, gutxienez aldaketa handi bat eragin beharko dute.

### **XVI. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA**

Kontratua bertan behera utziko balitz, SPKLren 208. artikuluan eta garapen-arauetan ezarritakoa hartuko litzateke kontuan.

Behin-behinean, partzialki edo guztiz, edo behin betiko utziko balitz bertan behera, dagokion etete-akta irekiko litzateke, eta bertan behera uztea sortu duen Administrazioaren erabakia agertu beharko da, adieraziz zein egoerak eragin duen eta zein egoeratan geratu den lana. Gainera, bertan behera uzteak eragin dituen atalak zehaztu beharko dira.

Bertan behera uztea adostu ondoren, Administrazioak enpresa kontratistari pairatutako kalteak ordainduko dizkio.

## **XVII. KONTRATUA HARTZEA ETA LIKIDATZEA**

Kontratua hartzea eta likidatzea SPKLren 208. artikuluan eta hurrengoetan eta APKLAOren 204. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da, administrazio kontratatzailearen eskumenen arabera eta kontratuak bete eta bertan behera uzteko ezarritakoaren arabera.

## **XVIII. KONTRATUAREN EBAZPENEA**

Kontratuaren ebazpena SPKLren 210. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako egoeratan gertatuko da, SPKLren 109. artikuluan eta APKLAOren 113. artikuluan ezarritako ondorioekin.

## **XIX. KONFIDENTZIALTASUNA**

Kontratuaren esleipendunak Administrazioaren fitxategietan dauden datu pertsonalak erabili behar baditu, bi erakundeen artean konfidentzialtasun-kontratu bat sinatu beharko dute. Bertan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen 5. artikuluari egin beharko zaio erreferentzia.

## **XX.- JABETZA INTELEKTUALA**

Aiarako Kuadrillaren jabetza izango dira jasotako lana zein egindako lanekin batera doazen eskubideak, horien jabetza industrialak zein merkataritzakoa, eta Administrazioak soilik erabili ahal izango ditu; ezin izango da saldu edo kopiatu Administrazioak ez badu zehazki baimentzen. Era berean, Administrazioak edozein momentutan lana osatzen duten material edo dokumentuak bildu ahal izango ditu, horien aurrekari, datu edo prozedura guztiak.

Jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubidearekin babestutako produktuak garatzea eta eskuragarri izatea da kontratazio-administrazioaren xedea.

Kontratatzaileak Administrazioari eman beharko dizkio euskarri informatiko batean lana egin bitartean erabilitako datu, kalkulu, prozesu eta prozedura guztiak.

Jabetza intelektualaren xedea osatzen duten lanak administrazio kontratatzaileari espresuki esleituko zaizkio, aurretiazko eskubideen kasuan izan ezik, horietan esleipena ez delako eskusiboa izango.

## **XXI. ADMINISTRAZIOAREN ETA JURISDIKZIO ESKUDUNAREN ESKUMENAK**

Kontratazio-organoak gaitasuna du kontratu administratiboak interpretatzeko eta

betetzearen ondorioz sor daitezkeen zalantzak konpontzeko. Halaber, kontratuak kontratatu eta horien ebazpena adostu ahal izango du, SPKLn eta aplikatzekoak diren gainerako araudietan adierazitako baldintza eta ondorioen arabera.

Kontratazio-organoak hartutako erabakiak, organo eskudunek txosten juridikoa egin ondoren, bere interpretazio-, aldaketa- eta ebazpen-prerrogatibak baliatuta, berehala betearaziko dira.

**Eskumen-jurisdikzioa eta baliabideak:** administrazio-kontratuen interpretazioari, aldaketari, ebazpenari eta ondorioei buruz sortzen diren auziak kontratazio-organo eskudunak ebatziko ditu. Organo horren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta horien aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke, aukeran, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Kontratazio-arloko errekurtso berezia. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, errekurtso berezia jarri ahal izango zaie SPKLren 44.2 artikuluan ezarritako egintza eta erabakiei, SPKLren 44.1 artikuluan ezarritako kontratuen kasuan, baldin eta horien balio zenbatetsia artikuluko horretan ezarritako kopuruaren berdina edo handiagoa bada.

Aipatutako errekurtsoaren izapideak SPKLren 46. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa beteko du.

Errekurtsoaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. artikuluko k) eta l) letretan eta 11. artikuluko f) letrean xedatutakoaren arabera.

**KUADRILLAKO PRESIDENTEA. Sin.: Encina Castresana Astarloa**

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

## I. ERANSKINA

### ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaun/andreak (NAN zenbakia: .....), bere izenean edo ..... enpresaren (egoitza soziala ..... kaleko ..... zenbakiko ..... pisuan, ..... herrian, ..... probintzian, ..... posta-kodearekin) ordezkari gisa,

#### **ADIERAZTEN DU askatasunez eta bere erantzukizunpean:**

1.- Administrazio Publikoekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, eta, bereziki, AIARAKO KUADRILLAREN ZERBITZU ETA BALIABIDEEN GIDA 2020-23 egiteko plegu arautzaileetan ezarritako kaudimena eta gaitasuna duela.

2.- Ez dagoela SPKLren 71 eta 73 bitarteko artikuluetan ezarritako ezgaitasun, bateraezintasun edo administrazioarekin kontratatzeke debeku-kasuren batean; barne hartzen da erantzukizunpeko adierazpen hau aipatutako artikuluetan ezarritakoaren arabera, dagozkion xedeetarako.

3.- Kaudimen tekniko eta profesionala ezartzeko, honako esperientzia profesionala du lan honen xede den bereko edo antzeko lanak egin ondoren:

- 
- 
- 
- 

#### **Era berean, ADIERAZI DU:**

- a) Zerga-betebeharrak egunean dituela.
- b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela.
- c) Kontratuaren xedeari lotutako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafean inskribatuta dagoela.
- d) Gaur egun bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela. Gainera, kontratuaren esleipendun izatekotan, egoera justifikatuko du eta kontrataziorako eskatzen den kaudimen tekniko osagarria justifikatuko du, dagozkion egiaztagiria aurkezteko errekerimendua jaso eta hamar egun balioduneko epean.

.....n, 20.....ko .....ren .....(e)(a)n.

**Sin:** ..... **jn./and.**

## II. ERANSKINA

### PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Prozedura irekian parte hartzeko proposamenak, "**2018-19 urterako Aiarako Kuadrillako Baliabide eta Zerbitzuen Gida**" egiteko lana kontratatzeko, honako eredu honen araberakoak izango dira:

..... jaun/andreak, bere izenean eta/edo  
..... enpresaren izenean, ..... notario jaun/andrearen aurrean  
botere-emailea den eskrituran adierazita dagoenean agertzen dena. Dokumentua ..... koa  
zen, eta ..... protokolo-zenbakia du.

### ADIERAZTEN DU

**Lehenengoa.-** Gonbidapenaren bidez badakiela iragarkirik gabe negoziatutako prozeduraren deialdia dagoela "**Aiarako Kuadrillako Baliabide eta Zerbitzuen Gida 2020-23 urteetarako**" deitutako lana egiteko.

**Bigarrena.-** Klausula ekonomiko-administratibo eta teknikoen pleguak aztertu eta ezagutzen dituela.

**Hirugarrena.-** Pleguek aipatzen dituzten legezko testu eta arau guztiak ezagutzen dituela.

**Laugarrena.-** Baldintzak betetzen dituela, eta bere borondatez aurkeztu eta onartzen dituela pleguek aipatzen dituzten dokumentu, lege eta araudi guztiak.

**Bosgarrena.-** Gidako iragarkien kostuaren zerrenda zehatza atxiki duela iragarleentzako, honako neurri hauetan oinarrituta:

**Seigarrena.-** "**Aiarako Kuadrillaren Baliabide eta Zerbitzuen Gida, 2002-23 urteetarako**" gauzatzeko lana burutzeko konpromisoa hartzen duela "0" €-ko prezioarekin, BEZa barne, honako zatiketa honekin:

- Honako hau da gidan iragarkiak jartzeko prezioa:
- Tamaina:
- Tamaina:
- Tamaina eta abar (jarri dagozkionak)

**Zazpigarrena.-** Honako **hobekuntza** hauek sartzea (horiek egotekotan, zerrenda **laburtu** bat egitea. 2. gutun-azalerako utziko da garapena).

- Gidan sartuta dauden baliabide eta zerbitzu guztien webgune eta mezu elektronikoetan gidaren iragarkiak agertzea (zehaztu ezartzen den edo ez).

- Gidan sartuta dauden eskualdeko baliabide eta zerbitzu guztiei hori bera banatzea (zehaztu ezartzen den edo ez).
- Eskualdeko intereseko informazioa duten pegatinak sortzea (zehaztu ezartzen den edo ez).
- Beste hobekuntza batzuk (zehaztu ezartzen den edo ez eta ezartzen bada horien zerrenda egin).

.....n, 20.....ko .....ren .....(e)(a)n.

Sin.: ..... jn./and.